Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bardoze

Aurkibidea

Udalerria: Bardoze

Sarrera



Lapurdi ekialdeko udalerria. Udalerri hauek ditu mugakide: Gixune, Ahurti, Hazparne, Bastida, Oragarre eta Bidaxune (Nafarroa Beherea) eta Hastinga (Landak, Okzitania). Nahiz eta udalerriaren ekonomiaren oinarria laborantza izan, XIX. menderarte Bardoze oso ezaguna zen bertan egiten ziren hilarriak zirela-eta. Udalerri honetako eremu ia osoan euskara izan da tokiko hizkuntza. "Xarnegu herrian" dagoenez, okzitaniera ere neurri apal batean presente dago: gaskoiera-hiztun bakanak batez ere Aturri ibaitik hurbil dauden auzoetan daude.

- **Biztanleak**: 1.621
- **Euskaldunak**: %20,06

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **8**
- Zintak: **7**
- Pasarteak: **83**
- Transkribatutakoak: **62**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **60**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)

Hizlariak



Pierre Elhuiar *Pierrot* (1936)

1936ko buruilaren 20an sortua Etxemaria (edo Larraldea) etxean, Sarrada auzogunean. Gurasoak bardoztarrak zituen: aita Zuhaztia etxekoa eta ama Gixunbidea etxekoa. Amaren aldetik arbasoak bardoztarrak ziren arren, aitaren aldetik arbasoak Hazparnen zituen. Etxemaria sortetxetik joan egin ziren Pierre sortu ondotik, eta bere aitak erositako Gerezieta etxean jarri ziren bizitzen. Laboraria izan da Pierrot. Ezkongabea da eta bere arrebarekin bi da Gerezieta etxetik hurbil eraiki zuten etxe berri batean. Euskara eta gaskoia konprenitzen ditu, baina ez ditu mintzatzen.



Léonie Laborde (1926-2015)

Léonie Laborde, sortzez Haristoy, 1926ko azaroaren 12an sortu zen Bardozen, Lerine auzoguneko Berroaga etxean. Gurasoak ere bardoztarrak zituen: aita Lurberrieta etxekoa (maizterrak) eta ama Hondarraga etxekoa (jabeak). Laborde zurgin jaunarekin ezkondu zen, eta Maulio etxera, haren etxera joan zen bizitzera. Bost haur izan zituzten. Elkarrizketaren garaian, bakarrik bizi zen Maulio (edo Berhabegaraia) etxean, baina bi semeak etxetik hurbil zituen; etxekoak hor ziren elkarrizketaren egitean. Euskara konprenitzen du baina ez du aise mintzatzen.

Jeanne-Marie Mendibil (1880-1938)

Jeanne-Marie Joanteguy zen bere sortzezko izena. Bardozeko Legarre auzoan sortu zen 1880ako azaroaren 11n, Kapera deituriko etxean. Aita oragartarra zuen; ama bardoztarra, Arotxaenea etxekoa. 1913. urtean Amorotze-Zokotzen ezkondu zen Jean Mendibilekin eta haur bakarra izan zuten, Jean-Baptiste, 1918 urtean sortua. Dendaria izateaz gain (*Mendibilea* deitutako janari saltegian/ostatuan), ortuzaina ere bazen Jeanne-Marie. Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak egin zion grabaketa 1913. urtean, 32 urte zituela. Euskalkia: ekialdeko behe-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.188 eta 2.190

Yvonne Quesson (1923-2018)



Sortzez Yvonne Dermitte. Bastidan sortu zen 1923ko azaroaren 14an, Bidon auzoko Pervòst etxean. Aita-amak bardoztarrak zituen, aita Iratxeta etxekoa, ama Jemenea etxekoa. 8 urte zituelarik, Bardozeko Ibarre auzoko Ibarbidea etxera itzuli ziren bizitzera, eta ondoren, Bardozeko kantonierra luzaz izan zen André Quesson jaunarekin ezkondu zen. Seme bat izan zuten. Erresistentzian sartu zen Yvonne Donapaleun josten ikasten zuelarik. Hirueleduna baldin bazen ere, euskara eta gaskoia ez ditu gehiago aise mintzatzen. Elkarrizketatzerakoan, bakarrik bizi zen Ibarbidea etxean.

Francois Suhas *Frantxoa* (1935-2015)

Francois Suhas

Ibarre auzoko Etxemendia etxean sortua 1935eko ekainaren 1ean. Aita-amak biak bardoztarrak zituen, aita Bidartea etxekoa (bordariak edo maizterrak), ama Satharitzea etxekoa (bordariak ere bai). Biak joan ziren Etxemendia etxera bordari gisa, eta bertan geratu ziren. Haurrak handitu zirelarik, Iriberria izeneko etxea erosi zuten, eta han geratu.
Ezkongabea zen bera. Elkarrizketaren egitean, anaia (Joseph) eta koinata (Isabelle-Etiennette) hor ziren, elkarrekin bizi zirelakoz.
Kanpoko garraio enpresa batean lan egin du hark, eta horri esker Ipar Euskal Herriko hainbat herri ezagutzen ditu. Euskaraz eta gaskoiz mintzatzen badaki.

Isabelle-Etiennette Suhas (1935-2022)



Sortzez Isabelle-Etiennette Doillet. Aita-amak biak bardoztarrak zituen, aita Sorhoeta etxekoa (bordariak edo maizterrak), ama Salenaua etxekoa (jabeak). Aitaren Sorhoeta etxean jaio zen 1935. urteko martxoaren 25ean. Joseph Suhasekin ezkondu zenean joan zen auzo bereko Iriberria etxerat bizitzera. Elkarrizketaren egitean, senarra (Joseph) hor zen, bai eta ere Frantxoa bere koinatua, hiruak Iriberrian bizi zirelakoz. Laboraria izan da bizi osoan. Haurrik ez dute ukan.

Jean-Baptiste Vivier (1921-2015)



Bardozeko Legarre auzoko Ipharragerrea etxean sortu zen Jean 1921.urtean, familia euskaldun batean. Gurasoak bardoztarrak zituen: aita Ibarburua etxekoa zen, eta ama Salako bordakoa, biak maizter seme-alabak. Bardozen aspaldi nahasi ziren euskaldun, gaskoi eta frantsesak. Txikitan, bere lehendabiziko bi auzoetako bat gaskoia zen, bertzea euskalduna. Apezek, ordea, frantsesez egiten zuten. Jean-Baptistek hiruak (euskara, gaskoia eta frantsesa) oso ongi menderatzen zituen. Laborantzatik bizi izan da Jean eta Bardoze ez du zerbitzu militarra egiteko baizik utzi. Hainbat urtez herriko kontseiluko kide izan zen. Bardozeko lehen auzapez ordea izan zen 1977tik 1983ra arte, Pierre Laborde auzapezaren lehen kargu denboran. Elkarrizketa egin genion garaian sortetxean bizi zen bere alaba eta bilobekin.

Maddi Zabarotz (1944)



Sortzez Maddi Salaberri. Ama zuen bardoztarra Maddik; aita, ordea, heletarra. Ibarre auzoko Halgaraxuria baserrian sortu zen eta bere semearekin bizi zen bertan bizi zen elkarrizketa egin zen egunean. Ederki ezagutzen du Xarnegu gunea, euskaldun eta gaskoiak nahasten ziren gune hori.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Laborantzako aldaketak

- **Hizlaria(k)**: Vivier, Jean-Baptiste
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-001/003
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:03:13. **Bukatu**: 00:05:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Jean ume zela, ia etxe guztietan laborantzatik bizi ziren. Ezkondu zenean, zazpi hektarea baliatzen zituzten bizimodua aurrera ateratzeko. Orain, alabak askoz hektarea eta abere gehiagorekin, ez du bizitzeko beste lortzen.

Transkripzioa
- Gero, txikia zinelarik, hemen Bardozen eta, denak laborantza etxeak ziren?
- Ba, ba, ba... gehientsiak, izigarri eta, oai, ta oai ez da /ezta/ laborantxaik gehio. Hemen, kartier huntan, bazien hogoita lau etxe, ta denak laborariak,

denak [laborantxatik] bizi. Bazien sei kuple artio, zera, etxe bakotxetan, denak etxen bizi. Ba zunbait aldiz, bazien zazpi, zortzi mahainian baderen, bardin. Eta etxe ttipiño bat hemen, ni hasi nizalaik, ezkondü nizalaik, zazpi hektara bazien, eta oai, bana hoon alaba, alaba ttipia, ezkondia ta Akamarreat, badituzte /batuzte/ berrogoi ta hamar [...] haragiaandako, blundak, iten dituzte /itentuzte/ hemengua eta Akamarrekua hirutan hogoi hektarea bederen arto, bihi... bihitzeko, eta eztit asko oono bizi! Juan behar dute /behaute/, hoon alaba, hoi, ene alaba ttipia da, ba eiten ditu /eitentu/ "des... des ménages", "femme de ménage", egun oroz, jendeen xeka hunat utzia du neska, neska, alaba hor, jende xeka ixtantian.
- Eta lehenago, gutiagorekin, gutiekin...?
- Bo! Ez da /ezta/ ez ta ez, eta oai, hogoi ta lau etxe hoietaik, laborantxatik bizi dienak, bizi dena, pentsa, ez [...] pentsa beharba zunbat geldi... gelditzen den... Baño bera! Hogoita lauen gaiñen. Bestiek denak laborantxa abandonatia dute.

1.2. Aita-amek gasna nola egiten zuten

- **Hizlaria(k)**: Vivier, Jean-Baptiste
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-001/005
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:09:10. **Bukatu**: 00:12:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Sei-zortzi behi izaten zituzten esnetarako eta aita-amek gasna egiten zuten saltzeko. Gasna egiteko prozesua azaltzen du.

Transkripzioa
- Gero, zerriak, eta gero ardiak edo behiak, edo... ardirik ez?
- Ez. Ba... ardi güti.
- Eta behiak?
- Behiak?
- Zenbat bazenituzten?
- Bo... sei, zazpi, zortzi buru!
- Eta zertako zenituzten? Haragientzat edo, edo...?
- Esnia.
- Esnea?
- Esnia. Hemen iten zuten aita-amek gasna anhitz beren... be... etxean oono. Ta saltzen zituzten /saltzentzuzten/ etxetik beretik. Zeren esneen biltzaldia, pasatzen zen gaiñeko bidien, bideküützien, bide handien, bana etzen heldu kartier ttipi orotaat, ordin nahi zienak ein zeit, behar zien gasna ein, ta saltzen zituzten /saltzentzuzten/ gasna etxen berien, ta bazien marxentak, bortzetan iten [...] gasna biltzen.
- Eta gero, oroitzen zen nola egiten zuten gasna?
- Ba, aise!
- Gasna nola egiten zuten?
- Einen oono ere gasna oai nik.
- Hola, eskuekin?
- " La " prezüra, "la présure", epel ernia, erapetik bezala zen, ez bero ez hotz oono, erdi untsa eman, etzen hainbeste furneguik e. Baiño furnegua zen eta oono bate gabe, ni oroitzen niz, eskuaekin, zera... "à la cheminée ". Prezüra eman, bil gasna, oren baten burian edo holako zeit, ta halee zen,

nula ari izena... "des garlandes", zer... "garlandes" atxiiteko, errun batzu, eta bazien, eta " il me semble que ce que je vois ", urta erretzen zitien, gasna " du jambon brûlé ", iten zien süia, sü bat [ederra], ta han behin büüz eman, geo ken hantik, eta eskiekin ütz. Etzien hotzik pasatzen eskietan. Ützülika gasna "tour"ian "tour". Dena pikoka, denak... Ba, gio abiatu zuten Zuhienetako plazan, ... zeen behar zen, eskiak beotzen gintien, zen behar... zerak... " avec le..., le chauffe-gaz " maxina erretzeko. Haakilan erretzen zuten gasna "tour"ian "tour".

1.3. Molde guztietako artoa

- **Hizlaria(k)**: Vivier, Jean-Baptiste
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-001/006
- **Iraupena**: 0:05:23. **Hasi**: 00:12:37. **Bukatu**: 00:18:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena**: Etxeko artoa izaten zuten, oiloei eta emateko. Lehen molde guztietako artoa izaten zen: gorria, beltza, zuria... Ogia eta arto-irinarekin "mestura", biak egiten zituzten. Sei-zazpi mando ibiltzen ziren errotara bueltaka. Egun bakoitzean kale bati tokatzen zitzaion. Mestura janda, aseta gelditzen ziren.

Transkripzioa
- Zer? Artoa, ogia?
- Ba, bietaik poxi bat. Artoa, zerrien gizentzeko [aitzeko] gehien bat, oilloendako, etxeko.
- Oraingo bezalako artoa zen edo bertzela...?
- Ez, ez, ez... Etxeko... erraten gindien "le maïs", "etxeko artua". Oai jin da arto amerikano hori. Hastetik, fu, etzien ddeus balio! Ez [...] nahi ee. Etziela irinik eta etziela heengo artua... ba bestie baiño gehio ekarten beitzuten. Eta bestie baiño gehio ekarten beitzuten, jendea plantatu hartarik ereiten.
- Eta nolakoa zen artoa ...? Gorriagoa? Gorriagoa edo...?
- Bazien... molde eta, molde guzietakoak. Bagindien gorri beltxa kategoria bat, gero bazen xuria, xuria, zera... erraiten [...] zutena, oai "pour..., pour gaver les oies". Nola erraten da...?
- Barkatu, antzarak?
- Bai.
- Eta gero, e, horrekin irina egiten zenuten?
- Bai, ni banin eta [...] ... puta, azkarra zen enetako. Zera... mestura, "la méture", arto irinaekin. Ogi irinaekin eiten zuten ogia, eta zera... denboa, ogia iteko denboran, eiten zuten ere "la méture", mestura. Eta ez zen batee gaixtoa. Untsa erria balin bazen eta iten zituzten /itentzuzten/ goizetan eta esniaekin eta ez zen oaiko pestaz...
- Eta non egiten zen irina? Irina? Errota batean hemen? Eihera batean edo...? Irina, non egiten zen?
- Ba, ez... hemen, hemen Bardotzen berien. Eta Bidaxünen eta bese herrietan ere bazen orotan, bazen orotan, zera... eiherak, eta bazien, ez zen xeka jüiten, eta gizon, nula erten gindakoten... "Ihazaiñak". Xeka heldu zienak, kartier bat eun, kartier bat bihar, eta iten zuten Bardotzeko "tour"a. Sei, zazpi mando elgarren ondotik estekatiak, denak kargatiak zakuz, eun

juanen zuten bihia, bihaamunien ekarten zuten irina. Kilo bat, atxiiten zuten kilo bat, hamar kiloondako. Ihazaiñak [...]. Eta geo, bihaamunian, irin huak ekarten zuten, eta berriz halee [...] beste kartiera eiteko irina heendako. Ta zunbaitek eiten zuten biziki ogi una, ta mestura ere. Bota mestura [...] nik untsa eina. Iten zuten, zer... eta platana hostuak, "des feuilles de platanes" eltze batetan "tour"ian "tour", irina emana, eta ematen zien gustüat eta ez batez ee, eta geo bihaamunien trantxaka suian ondoen, erretzen zuten, "grillé"... Hua porroka esnien barnien untsa [...] zen jaten zatan hartaik... "un bol", bola bat...
- Katilu bat?
- Ba, ez, han, ez ez ttipia. Etxeko andeenetaik, untsa mesturaz artoaekin betia. "Ale, jan hua" eta ez zen [...] ez debruik ez. Izandako gizona libro.
- Eta, ez zen orain bezala jaten ez lehenago ez? Zer jaten zenuten?
- Bo...
- Berdintsu?
- Ez, pentsa te! Bazen behin bat ogi, ez [...] gaztek ez lukete nahi mestura hori.

1.4. Etxeko erleak

- **Hizlaria(k)**: Vivier, Jean-Baptiste
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-001/024
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:53:01. **Bukatu**: 00:56:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Erleak bazituzten etxean eta Jean arduratzen zen haietaz. Emaztea ziztatzen zutenean, kalte egiten zioten baina berari ez. Ezti asko batzen zuten eta argizaria ere bai. Etxearen aitzinean izaten zituzten. Eztia ogiarekin jaten zuten. Erleak ezin ziren saldu, eman egiten ziren.

Transkripzioa
- Eta erleak bazenituzten? Erleak?
- Ba, ba, ba [...] e.
- Eta nor okupatzen zen erleetaz?
- Au, ni! Eta [...] oai [...] suñatü garbitia oaik ee, hiltzen beitzakote. Emaztiak ez zitian hürbil. [...] balin bazüten, heldu zen muzturte! Eta ni jüiten ahal nitian, bülüzik, ez zaute ddeus einen! Ukan ditiat /ukantiat/ berrogoita zun... bah, gehio ere ba, zerak... lehenaoko...ze...einak... nola erraten dakote eskuaraz... "avec des tires" einak... "des ruches anciennes, quoi". Ukan [...] bertza handia, berrogoita hamar pinta...atxiiten diena, ukana [...], sukalde hunen erdian betiak...
- Eztiarekin?
- Ba, eztiaekin.
- Eta egiten zen bertze zerbait? Erleekin eztia bakarrik egiten zen edo...?
- Eztia eta, edo... "la cire".
- Eta zertako ibiltzen zen hori zira?
- Bo e, kameretan ez zen "carrelage"aik oai bezala e. Ez zen kanb... ganberak edo sukaldiak edo denak, taula...kin, einak zien.. Emaztek han e... ur, urtu... urtu poxi bat, ta eman, edan eta... eta freta!
- Eta non atxikitzen ziren erleak? Etxetik urrun edo...?

- Bah, ez, ez, ez. Bo, hemen [...] batzu, pff... hogoita hamar metre, hor berien, etxe [...].
- Eta batzuek erraten dute norbait hiltzen zelarik etxe batean, zenbait tokitan e, joaten... joan behar zela erleei erratera. Hemen egiten da?
- Bo...
- Ez?
- [...] eundano entzun hori.
- Eta eztioi gero... eztia, zer egiten zenuten? Etxean atxiki, edo saldu, edo...?
- Ba, etxe, etxean atxiki.
- Eta nola, ba, hola-hola jaten zenuten? Ogiarekin edo esnearekin edo...?
- Ogiaekin. Ogiaekin, poxi bat. Poxi bat "cuillère", zopako "cuillère" bat, edo biga, eman azitan eta ogiaekin te! Ez zen gaixtua, ez debruia. Zeen erten zitena, hemen lehen erlia ekarri gindiena, ez zela erosi behar, ez zela pa... paatu behar diruz. Behar zela zeit eman. Zuk ekarten zinien erle bat, bee kofoiñaekin, eta guk eman gindakon, e... egür, egur, egurra, berotzeko egurra. [...] eta ez ziena sosik nahi diruik. [...]
- Eta zertako ba?
- Bo...!

1.5. Laborantza etxea

- **Hizlaria(k)**: Zabarotz, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-002/011
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:14:18. **Bukatu**: 00:15:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena**: Laborantza etxea zen Maddirena. Urtearen arabera gauza bat edo bestea ekoizten zuten: ogia, artoa...

Transkripzioa
- Gero orduan, etxe honetan e... hau laborantza etxea zen ez?
- Ba, ba.
- Eta zer egiten zenuten? Ogia, artoa, denetarik?
- Ba, denak.
- Denak?
- Denak, denak, denak. E... be... behar zien guziak. Geo, urtiak ez zien denak berdinak. Zonbeit urtez, bon... huts eiten zen edo arbia, edo betarraba, edo... huts, huts eina, ta geo gabe egoiten zen. Bana besteñez eiten zen ogia, orja, galaarra, artua...
- Zer egiten zen garagarrekin?
- Kabalen(d)ako.
- Kabalendako?
- Ba, behi, ardi... xerrien(d)ako, ardien(d)ako...
- Arbia ere bai, kabalendako?
- Ba, arbia ere. Negian ez zen anzilajaik oai bezala, behien(d)ako, denen(d)ako... Arbia ateatzen gindien, eta karreatzen etxeat, eta geo emaiten... Xehatuik, besteñez e... gaizki e... ire(n)sten bazuten e... zonbeit aldiz bazen [...] behiekilan.

- Eta orduan, etxean egiten zenuten guzia etxean kontsumitzen zenuten, ez?
- Ba, ba, ba, ba. Ez zen soberakinik.
- Ez zen soberakinik?
- [...] kontent arribatzia...
- Zer... eta...?
- Belarraekin eta...
- Iratzearekin eta ere egiten zenuten?
- E... idatzia pallatzeko bai, eiteko...
- Azpiak?
- Azpiak, "voilà" .

1.6. Erlerik bazenuten?

- **Hizlaria(k)**: Zabarotz, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-002/018
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:26:28. **Bukatu**: 00:29:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena**: Norbait hiltzen zenean erleei aitortzera joaten zen aita. Maddik beldurra zien erleei eta ez zen hauengana gerturatzen.

Transkripzioa
- Bazenituzten erleak?
- Ba.
- Erleak baziren?
- Ba, ba.
- Eta, ez dakit... galdua zen aspaldi usaia, baina batzuek erraten dute norbait hiltzen zelarik...
- Ba...
- Joan behar zela erleei erratera...
- Ba...
- Egiten zenuten?
- Aitak ba.
- Aitak egiten zuen?
- Beti.
- Beti?
- Ba. "Enfin" ni izigarri beldur nien erlez zeen eta [...] "euh... enfin... quand ça piquait"...
- Bai?
- Ez zen goxua!
- Eta orduan, zure aitatxi hil zelarik, zure aita...?
- A ba, ba, ba. Eta erleak bagintien, gu eskolan, beharbaa amatxi hil delaik, hamabost urte nintien, beharbaa ordien ez gindien gehio erleik e! [...] e... emeki-emeki e... hil die, ta ez zen berriik, eta geo... lehen... lehen... oroitzapena, baatzeko hesien, baatzeko alderritik, baatzeko aldetik zien, erliak. Ta geo eman zituzten /zuzten/... xara bitzen e... e... bordaan onduen... akazia eta... akazia ta gaztendei, ta... haitz(tei)...
- Txara?
- Xara... xara, hor. Hor jadanik urruno zien. Ez zien ahala, besteñez bero

zelaik, eta pasatzen gindelaik belarretaat eta, o... o la la, "quand je...", ni ez niz "enfin..." aski urrun e... pasatzen ni(n)tzan, ez ziten e... jin e...
- Eta orduan, oroitzen zara egun bat preseski zure aita gan zelarik erleei erratera norbait hil zela?
- Ba, ba... ni oroitzen niz hortaz, ba.
- Eta joa(ten)... zer erran...?
- Jo eiten zien, eta erten: "Voilà, voilà", e... aita... ez dakit nola erten den "beau-père" edo "belle-mère", edo ttantta... "zendu zela, ta..."...
- Eta orduan, atxikitzen, atxiki zuen orduan hori?
- Hori oroitzen niz ba, hori oroitzen niz.
- Eta...
- Ez dakit, besteñez hilen ziela!
- A, bertzeenez hilen zirela?
- Ba, besteñez hilen ziela erliak!
- Orduan erran behar...
- Nik ez dakit egia "enfin"... Ba gertatzen da oai... erliak eta, hazten duner... Gertatzen da norbait hiltzia, ez dakit e... ba ote denez galtzia, geo... norbait hil onduen e...
- Baina beti hori erraten zuen aitak, behar zela erran, bertzeenez hiltzen...
- Ba, eiten zien. Eiten zien aitak hori, ba.

1.7. Eztia egiten zuten

- **Hizlaria(k)**: Zabarotz, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-002/019
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:29:12. **Bukatu**: 00:31:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Erleekin eztia egiten zuten. Inguruan etxe guztietan zuten eztia.

Transkripzioa
- Eta gero, erleekin, zer, bertzeenez, eztia?
- Ba, ba. Aita okupatzen zen, ba.
- Eztia. Goxoa zen eztia?
- Ba nik ez nien maite ordien... ta oai ba!
- Eta bertzerik egiten zen erleekin...?
- A bazi(en) "la cire" ere eiten zuten. E... eta...
- [...]?
- "Des planchers"... Ba, ba, ba. Ba. Holako salbuiña bezalako "des carrés"...
- Bai?
- "Marrons, enfin jaunes..."...
- Eta hori...?
- Beltzaana.
- Taula [...]?
- Hua geo... Ba. Hua geo urtzen zuten, boata bat "au bain-marie", eta terebantina emaiten, itzuliz, eta geo arrunt e... ta... "enfin" ez da hola bilakatzen bana... "liquide"...
- "Liquide"?
- "Liquide" bilakatzen zelaik, geo hua "chiffon" batekilan pasatzen zen eta mubletan, edo... edo taula... ta(u)la zurez... taula zuretan.

- Eta eztia, etxe... hemen etxe guziek bazuten, eztia?
- Ba, nik uste ba. Ba, ba, ba.
- Eta denek egiten zuten aita bezala?
- E... hori ez dakit... Hori ez dakit e!
- Ba, batzuk eginen zuten?
- "Voilà"! Hori e... bakarrik aita zienez, aita Heletatik jina bitzen hunat, ez dakit bakarrik hak zienez erten edo... "Mais" ezagutzen dut e... norbeit, berrikitan bazienak erliak. Eta galdeinen dakot. Hua bardoztarra da ere... "Guérin". Ezautzen duzu?
- Hura ere euskalduna da?
- Ez.
- Ez?
- Ez... Konprenitzen du beharbaa, bana... fran(tses)...
- Paskalenea?
- "Maison Pascal". Ba, hua jiten da gue launtzea egurraan eiten, neguko egurraan eiten, eta hak ekarri dauz(ku)... ekarri dauku ba, ez e... azken urte hotan, bana bere etxeko...
- Eztia?
- Eztia.

1.8. Zerriki puska desberdinak Bardozeko euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Laborde, Léonie
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-005/006
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:11:05. **Bukatu**: 00:12:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
  Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Beste anitzek bezala, zerria etxean berean hiltzen zuten. Langileriari egunero janaria eman behar zutelako, hiru zerri hiltzen zituzten Léonieren etxean. Tokiko hizkeraz nola erraten ziren zerriki puska batzuk zerrendatzen dizkigu pasarte honetan.

Transkripzioa
- Apezari ere ematen zitzaion puska txikia? Apezari ere?
- Apezari, "ou on portait le boudin, ou bien les... les filets mignons. Mais le boudin, souvent."
- Hori, "filet mignon", nola erraten...? Badakizu... Nola erraten duzu euskaraz, "filet mignon"?
- "Euh... comment on disait...? 'Le filet', comment c'est...? 'Lunja'... 'lunja' c'est le fil... 'le filet'..."
- Nik ez dakit e... "filet mignon"... Bada... Aditua dut e, baina izena gero... Eta gero, odolkiak, eta artekia egiten zenituzten?
- Artekia, xingarra, kostak, galtxarrunak... galtxarrunak...
- Zer dira 'galtxarrunak'?
- "Les rognons".
- A to. Eta 'tripota', zer da?
- "Le boudin".
- A, a... guk 'odolkia' erraten dugu. A, tripotak egiten zenituzten?
- Tripotak, xauxikak... hum!

1.9. Behiak etxean

- **Hizlaria(k)**: Suhas, Isabelle-Etiennette
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-006/011
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:03:45. **Bukatu**: 00:04:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Isabellek eta Joseph senarrak diote dozena bat buru bazeukatela behi taldean. Ardirik, aldiz, ez zuten Iriberrian.

Transkripzioa
- Isabelle-Louisette: Geo kaalak.
- Kabalak? Zenbat? Bizpahiru behi? Gehiago?
- I.L.: Ba gehixao, ba. Bizpahiru behi? Gehixao ba!
- Joseph: E?
- I.L.: Behiak, hamar bat, hamabi, hama...
- J.: Dotzena bat.
- I.L.: Dotzena bat, bethi.
- J.: Gero... balin ba...
-I.L.: Ez ziin /etziin/ etxe partiak oai bezain handiak.
- Ardiak ere baziren? Ardiak?
- I.L.: Ardiak?
- J.: Argiak? Ez.
- I.L.: Ez.
- J.: A, ardiak?
- Ardiak, ardiak.
- I.L.: Ez.
- J.: Ez, guk egin... ba bazen, ba, zonbeit...
- I.L.: Zonbeit etxetan bazen, bana ez ziin /etziin/ oaiko tropak! Berrogei bat, berrogeita hamar bat, hola. Baziin ardi zonbeit eta...
J.: Oono 're, badie lehenoo bezala [...]
I.l.: Ba gehio ba!

1.10. Zerria hiltzerakoan, etxekoak eta auzoak gonbidatuak

- **Hizlaria(k)**: Suhas, Isabelle-Etiennette
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-006/012
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:04:47. **Bukatu**: 00:05:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena**: Etxalde guzietan bezala, Iriberrian ere zerria hazten eta hiltzen zuten, bi hain zuzen ere. Hiltzerakoan, etxekoak eta auzoak hurbiltzen zitzaizkien laguntzera, eta ondotik kartetan jostatzera.

Transkripzioa
- Eta gero, zerria ere etxean hazten zenuten?
- Isabelle-Louisette: Ba, ba, ba, ba, xerriak eta oiloak eta...

- Zenbat, urtean zerri bat egiten zenuten, edo gehiago?
- Joseph: Ba biga're.
- I.L.: Biga're, biga... bi zerri.
-J.: Oai ez duu /eztuu/ gehio hiltzen...
- I.L.: Oai ez duu /eztuu/ gehio hiltzen e.
- Orain galdu da usaia?
- I.L.: Ba, e oono badia ba, etxetan hiltzen dutenak, xerria.
- J. Ba güti.
- Bai. Eta zerri hiltzetan eta laguntza biltzen zen, kanpokoa, ez? Kanpotik?
- I.L.: Bo auzoak...
- Auzoak?
- I.L.: Eta familia. Hurbiltzen da familia, eta auzoak.
- Besta pita bat egiten zen?
- I.L.: Ba, pesta?
- J.: Ba, kartetan!
- I.L.: Kartetan aatsaldetan, eta "voilà".
- Eta zerria hiltzen zelarik, zer? Odolkia atera?
- J.: Ez zen /etzen/ elektrizitateik, ez...
- I.L.: Ez ginien eta argirik 'e, ez zen /etzen/ elektrizitateik... Beaz... ez zen /etzen/... lanpa [...]ekin eta "bougie"ekin egiten zen!

1.11. Garitik ogira

- **Hizlaria(k)**: Suhas, Francois; Suhas, Isabelle-Etiennette
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-006/029
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:14:49. **Bukatu**: 00:18:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Baserria » Baserriko lanak
- **Laburpena**: Ogia astero egiten zuten Iriberrian. Etxean egindako garia ezkaratzean kontserbatu ondotik, errota batera eramaten zuten irina bilakatzeko. Etxean zeukaten labean egosten zituzten ogiak.

Transkripzioa
- Eta gero, zertarako etortzen ziren laguntzera, auzoak? Zerria hiltzeko? Eta gero, ba bertze batzuetan etortzen ziren?
- Isabelle-Louisette: A ba, lan... lanetan e', elgar laguntzen ginen, udan belarretan, eta... ze... zernahi motetan.
- Ogia egiteko, eta ogia juteko, eta...
- I. L.: Ogia egiteko.
- Egiten zenuten ogi gehiago eta? Egiten zenuten, ogia?
- I. L.: Ba, ba, ba, ba.
- Eta gero etxean egiten zenuten?
- I. L.: Jo... joten, ba.
- Frantxoa: Ba maxinaekin, hor zen, ezkaratza zen hor. [...] emaiten nien dena, ta geo maxina gielian, ta geo ale...
- I. L.: Leheno iten... iten zen oaiko...
- Joseph: Bi eihera [...]...
- Bi eihera? Bardozen berean?
- J.: Ba, ba, [...]...

- F.: Hiru!
- I. L.: Hiru, hiru.
- F.: Gixeko (Gixune) limitan.
- Eta jendeak harat eramaten zuen ogia?
- F.: Ba, ba! Ba pasatzen zien mandoekin e', etxetan...
- I. L.: Etxetan...
- F.: Ogiaan xeka, irinaan egiteko, eta geo...
- I. L.: Artoa 're mestu... mesturaan iteko.
- A bai, hori Vivier-ek (Jean-Baptiste Vivier) kontatua nau. Eta labea bazenuten etxean ogia egiteko?
- F.: Ba, ba.
- Eta asteko ogia egiten zen orduan? Aste guziko?
- I. L.: Ba asteko ogia, aste... "Enfin" iten giniin ogia eta geo fini zelaik...
- Berriz?
- I. L.: arra iten giniin.
- F.: Bardotzen, oono, iten zuten beant e, ogia, Beterbidian!
- I. L.: Ba, ba, etxe ogia iten zuten oono, beantian, bana geo bon... abandonatu zuten.
- F.: Banien Martikorena, Iisarrin (Irisarri), erdi espaiñola zien, bietan iten zuten astian, ogia. Zonbait aldi jan dut xingarrekin ogia, fresko-freskoa, "putain"!
- Batzuk patatekin egiten zuten, omen.
- I. L.: Nola?
- Patatarekin. Batzuk egiten zuten nahasita, zenbaitek.
- I. L.: A ba, ba, ba.
- Patatarekin.
- I. L.: Ba, patatekin, ba.
- Ez dakit, ez dut behin ere dastatua!
- I. L.: Nik e' ez, eta beti ogiakin in duu, guk, eta... ogi irina.
- Eta andrek egiten zuten hori? Ogia?
- I. L.: Ba aitak eta... ait' eta amek iten zuten... ze... zernahi, "enfin" batek edo bestiak iten zuten pasta, eta "voilà".
- F.: "Oui, oui" oro denak aldea die!
- I. L.: Eta fini! Hoi fini, hoi oro...
- Hori fini eta noiz zen, noiz zen hobeki? Lehenago edo orain?
- I. L.: A be lehen... oai, oai bizi denak behar balu bizi gue denboran...

2. Familia eta harremanak

2.1. Auzoen arteko elkartasuna egunerokoan

- **Hizlaria(k)**: Vivier, Jean-Baptiste
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-001/004
- **Iraupena**: 0:03:41. **Hasi**: 00:05:29. **Bukatu**: 00:09:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Gurasoekin eta aitatxi eta amatxirekin bizi izan zen. Auzoen artean lanak beti elkarrekin egiten zituzten. Arto-zuritzen hogeita hamar-berrogei jende biltzen ziren. Zerri hiltzeetarako, etxe batetik besterat pasatzen zuten negua. Zerriaren puskak auzoei banatzen zitzaizkien. Apaizari ere eramaten zioten.

Transkripzioa
- Etxe honetan, gaztea zinelarik, zenbat zineten?
- Ba, e... ez zen iten nunbre. Ba halee baginden biga, lau, aitatxi eta amatxi ezagutu ditut /ezaututut/ [...] ez da /ezta/ oono mutil bat hartzen gaiñien.
- Eta aitatxi eta amatxi hemengoak ziren ere bai?
- Hemengoak ere. Sortiak eta oro Bardotzen.
- Eta auzoekin eta orain baino gehiago elkar laguntzen zen?
- Ba! Bo etzian ere, ez dugu /eztuu/ konparatzen ahal. Etziten lan bat iten elgarrekin izan gabe! Eta, be... zera nion... hooi hoietan, maxinekin joiten ginen, ez zen oai bezala, lana gaiñen ez... biltzen zien denak elgarrekin, artoa, arto xuitzen, "dépouiller les maïs", Hogoita hamar, berrogoi jende, auzoak oro, biltzen zien hemen, bihaamunien bese auzuen. Zerri hiltziak: neguia pasatzen gindien, hiltzen gintien zerriak, neguia oro pasatzen gindien auzoetetaik besetaat ...
- Eta zenbat, etxe bakoitzean, zerria hiltzen zen batto? Bat?
- Ba. be ta bi eta hiru zunbat aldiz. Bat ederra, geo bestea ttipixooñoa, geo zunbait jende zen. Bazen haur ere anhitz oai baiño gehio... Hogoi familietetan zonbat badie? Hiru balin badira... Puh! Familia handia da! Ordian bazien bortz, sei, zortzi, hamar, hor sei behar zen hil e!
- Eta zer egiten zen gero zerriekin? Zer puska, zer puska egiten ziren?
- Etxeko [...] züten beti bizpahiru, gizentzeko, seko hiltzeko.
- Eta zer? Odolkiak, xingarrak...?
- Xingarrak, odolgia. Odolgia bazen usaia, nik, guk hiltzen gindien zerria. Juanen gindien, juanen ginden, ekartea auzoetaat, "tout... autour", inguru... ingurien. Borzpasei, sei zazpi, ez zen "congélateur"ik oai bezala, ordin ez zen kontserbatzen... Partitzen gintzien auzoetan, eta auzoek gero berriz ekarten zuten bere "tour"ien... Bo!
- Eta, batzuk apezei eta eramaten zioten, zuek ere bai? Apezei eramaten zen, puska zerbait?
- Bai, "le... le"... fileta! Erten zuten geo... erten "odolgiak"... "tripotak".

2.2. Ezkontzerakoan, maila soziala bereizgarri

- **Hizlaria(k)**: Vivier, Jean-Baptiste
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-001/015
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:34:43. **Bukatu**: 00:37:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Ezkontzerako orduan, etxejabeak etxejabeekin batzen ziren eta bordariak bordariekin. Dotea eman ahal zutenek ematen zuten, besteek ez.

Transkripzioa
- Gero... nola egiten... esposatzeko, eta nola egiten zen? Joaten zen... zuk hautatzen zenuen nahi zenuen neska eta... haren aitari galdetzen edo... nola... nola pasatzen ziren holakoak?
- Ez zen oai... oai bezala ez. Behar zen, e, proprietarioa bazinden, ez zen hartua neskato bat, ddeus ez ziena e! Proprietarioa proprietarioekin, eta bordariak...

- Bordariekin?
- Bordariekin. Eni geo... ezta... sanjatu da fite ba. Bana ba, diela berrogoita hamar urte oono, hu, iten zuten... "les"... iten... zera...oono. Halta, e, bordarien neskatoak egon neskatxak, beste bezen balio esposatzen zunbait aldi gehio bana... bo! Izkuntzen duk... izkuntzen duk oono... debria neskatu pitxar horrekin. Bordari baten alaba balin bazen...
- Eta... e, gero, orduan, zer, dotea edo eman behar zuten neskek? Ez, edo bai?
- Bo, ez. "Si" bazuten... bazuten etxetan, juiten ziten... zeit, beti... uf... "les draps de lit et le..."...
- Bai, mihiseak edo?
- "Le", nula [...] "la dot, quoi". Ta hemen, ezkondü nizalaik, emaztiaan etxe... etxeik ondokuak, jin zintian oono e, be, idia bazütian, estali xuriaekin eta, bezpe... bezperan, ekartea... ganberan... behar... behar zien gauzak.
- Eta zer? Zuk gostukoa hautatzen zenuen edo... edo aita eta amek errana? Nola izaten zen?
- Bah e... aita-amek emaiten zuten zurra, oai baino oai ez zuten zurrik nik uste! Baten bilen ba! Ordin juiten zutena ... horietan bazen... ni neska... neskatxo hori agradatzen zautan, gero, hem, bordari neskatoa balin bazen, erranen zuten: "Bai... eta, ez zuiñekin bizikoik? Zeekin bizikoik? Ezta ddeus... ddeus ekarten... ez ziten ddeus ekarriko!".

2.3. Ama Bardozekoa

- **Hizlaria(k)**: Zabarotz, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-002/002
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:00:38. **Bukatu**: 00:01:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Jaio zenean osabak alemanian preso egon ziren. Ama bardoztarra zen.

Transkripzioa
- Aita ez zen presonder. Hola jin da gerla finitzen. Bana amaan aneiak preso zien Alemanian, hek jin die "en quarante-cinq" edo "quarante-six" edo hola.
- Bai. Eta etxe honetan berean sortu zinen?
- Ni ba.
- Biak, aita eta ama... ama zen...
- Ama.
- Ama zen hemengoa?
- Ama hemengoa.
- Bardoztarra?
- Bardoztarra ama.
- Eta aita nongoa zenuen?
- Heletarra.
- Heletarra. Hona lanera edo etorria...?
- Ez, ez, ezauna, ezautu dute nik ez dakit sobera nola, eta geo aita jin da hunat. Etxen bazien arreba jadanik esposatia.
- Bai?

- Laborantxan.
- Han Heletan?
- Ba, Heletan.

2.4. Sei anai-arrebetatik zaharrena

- **Hizlaria(k)**: Zabarotz, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-002/004
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:01:58. **Bukatu**: 00:04:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Aita eta ama beti Bardozen bizi izan ziren, bera ere bai. Sei seme-alaba ziren, bera zaharrena.

Transkripzioa
- Aitaren arreba egon zen Heletan baserrian?
- Bai.
- Eta bera hona etorri zen?
- "Voilà".
- Eta gero beti hemen Bardozen bizi izan zara?
- Aita ba. Aita ta amak hemen hilak die.
- Eta zu, betidanik hemen...?
- Betidanik.
- Nola du izena etxe honek?
- Algaxuria.
- Algaxuria?
- Bai.
- Eta zenbat haurride zineten hemen?
- Gu sei... sei haurride.
- Zu zenbatgarrena?
- Lehena, gehiena... gehiena.
- Eta e... horretarako egon zinen orduan etxean? Gehiena egoten zen orduan?
- Be... ez etxe guzitan, bana aitak ez zien nahi noabeit laneat joan nintain, geo etxeko gustia galduko niela... "Et donc" nik, bon, pena dut ez ikustia nola, besten etxen, nola ari den lanien, nola...
- Bai zeren eta lehenago, anitzetan joaten ziren bertze tokietara neskak eta... hirira edo joaten ziren anitz...
- "Voilà"! Ni berdin zatan, edo laun... jenden launtzeko familia batetan, edo sasoiak e zonbaitzuk eiten zituzten /zuzten/ Lurden edo... edo kostan e... Bon hola, hilabete bat urtien edo hola, guti joanen nintzan. Ta geo aitak beti erten zien: "Ba, eta nik ze ein behar dut geo?" Mutila harten zen langilia etxe laborantxetan, eta launtzen zuten gizonak, harten zituzten / zuzten/ mutilak. "Zer behar dut geo nik, mutila hemen paatu?" Bo ta geo, e... denboran, e... aitamen, aitak, aitamek erten zutena ez gindien urruno xekatzen eiteko beste zeit, gue gustukua, gue gustura.

2.5. Aiton-amonen etxe berean bizi da

- **Hizlaria(k)**: Zabarotz, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-002/005
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:04:12. **Bukatu**: 00:05:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Bera etxean geratu zen, baina bere anai-arrebek alde egin zuten. Amona ere Bardozera ezkondu zen, Maddiren etxean bizi izan ziren.

Transkripzioa
- Orduan aitak nahi zuen zu hemen egotea?
- Ba.
- Eta bertzeak joan ziren?
- Ba, bestiak joan die.
- Joan dira. Eta txikiak zinetelarik orduan, zenbat zineten etxe honetan? Aita, ama...?
- Ba, aita-ama, be amatxi, amaan ama...
- Bardoztarra zen?
- Ez, aintzildarra.
- Aintzildarra?
- Eta aitatxi bardoztarra, beste kar(tier) e... aitatxi hemen sortia.
- Etxe honetan?
- Etxe huntan. Hameka haurride zien aitatxi. Eta "donc" amatxi Aintziletik jin da hunat, eta hiru haur: ama, eta geo bi seme.
- Eta erran duzu bazenituela, zer ziren e... izebak, matantak e...?
- Ba. Amak bazitien aitaan arrebak, lanien hartiak Biarritzen, Baionan, e... langile... etxe... jende... "enfin"...
- Aberatsen etxean?
- Bo, aberatsa edo ... "enfin", ba, bazuten paatzeko "moyen"ak e.
- Bai, burgesak edo...?
- "Voilà, des ...", bon eta geo, erretretan, e... etxeat jin die, bere(n) aneiaan etxat, hunat. Eta hola nik ezautu ditut e... hiru ttantta, aitatxiin arrebak, hemen... hemen hil dienak.

2.6. Bardozeko auzoak eta auzokoak

- **Hizlaria(k)**: Zabarotz, Maddi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Erref**: BDZ-002/021
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:31:24. **Bukatu**: 00:33:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak
- **Laburpena**: Bardozeko bizilagun motak, nobleak...

Transkripzioa
- Bazen erran zahar bat...

- A?
- Lau kartierretako izenak...
- Azken aldiko...
- Bai.
- Ba...!
- Erran!
- Ba...!
- Zer da? Zer zen?
- A ba, bada "Turc Ibarre", e... Lehenik, e... o la la... "Noble... noble Legarre"... izkiiatia...
- Hemen da...
- A, beharrik!
- Hor´e izkiiatu dut! A, "Porrota Sarrada, Turc Ibarre, Noble Legarre, 'Biba' Leguine". Eta Sarradako jendek erten zuten "Turc Sarrada, Porrota Ibarre"! Zeen eta horgo gaztiak elgarrekin eiten bitzuten bidia. Eta beste bi kartier hoiek ez die gue kartieraan onduen. Bana horgo gaztiak elgarrekilan eskolatik, katiximatik eta... bide bera zuten.
- A, orduan... bai, bai, bai... "Porrota" hori [...]...
- "'Nul'... 'nul'... ça veut dire 'nul'"!
- "Porrota Sarrada", "Turc" e... Ibarrekoak? Turkoak?
- Guk hola diu intzutia hemen.
- Bai.
- Zeen eta "Ibarre" gii... gie gu, "Ibarre".
- Eta "nobleak" Legarrekoak orduan?
- "Voilà, 'noble Legarre'"
- Eta "Biba Legine" orduan.
- "'Biba' Leguine" e... Peioon kartiera!
- Eta hori, hemengo jendeak erraten zuen, gazteek...?
- A ba, ene ottok... ottoek eta amak´e ba, ez zien sobera aipatzen ez, bana "plutôt" motikuek zien... zuten eta... Bon neskatuek ez dute ahala elgar e... "enfin"...
- Bai, bai... ez da berdin...
- "Voilà", ez... mutikuak die e... "pour bousculer, enfin pour bagarrer, pour bousculer..." neskatuak bano!

2.7. Eskola gutxi, lan asko

- **Hizlaria(k)**: Mendibil, Jeanne-Marie
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: BDZ-003/001
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:00
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Bere bizitzaren berri ematen digu pasarte honetan. 1880. urteko hazilaren (azaroa) hamaikan Bardozen sortua. Aita arotza zuen. Zortzi haur bizi ziren, beste hiru hilak ziren. Bortz urtez joan zen eskolarat, azken bietan huts asko eginez haurrak zaintzen zebilelako. 14 urte zituela, haurrak zaintzen joan zen amerikar laborari baten etxera. Gero josten ikasi zuen.

Transkripzioa
Amorotze, uztailaren hoita zazpia. Jaunak, xapo'at enbarrasatia nüzü, ixtorio hunen eiteat, bana ene ahalaz kuntentatüko dielakotz hasten nüzü

ene in ahalaan eitia.
